

**1131/2024 EBAZPENA, apirilaren 25ekoa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Aho eta Aurpegi-Masaileko Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.**

#### AURREKARIAK:

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearen otsailaren 23ko 535/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Aho eta Aurpegi-Masaileko Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko martxoaren 15eko EHAA 55 zk. eta 2024ko martxoaren 25eko BOE 74 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2024ko apirilaren 18an amaitu zen.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Aho eta Aurpegi-Masaileko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.



Osakidetza

EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETA ESI

OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2024ko apirilaren 25a

 Osakidetza

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendari gerentea,  
María Luz Marqués González

**ERANSKINA**

**Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI**

**AHO ETA AURPEGI-MASAILEKO ATAL SANITARIOKO BURUA**

**BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK**

**Onartuak:**

**D<sup>a</sup>. Goiztidi Diaz Basterra and.**

**Baztertuak:**

**Inor ez**